





Gutxien eskatzen
dionarekin egingo du
koalizioa EAJk,
Praderak dioenez / 6



Errusiako errepublika
autonomoak Boris
Ieltsin-en aurka
azaldu dira / 18



Oteiza: «Txillidak
bi estilo ditu,
bata berea eta
bestea nirea» / 23

Egunkaria

Asteartea, 1991ko maiatzak 14 / II. urtea / 134. zenbakia / Salneurria: 75 pta. / 4,5 libera

HERRI URRATS

Helburuak bete zituen Seaskak

Iaz bezainbat jende ibili zen Sen-
peren Herri Urratsen zortzigarren
edizioan, euriak jaia itsusitu bazuen
ere. Antolatzaileek zituzten xedeak
bete direla adierazi zuten atzo. / 11

Balio gabe utzi dute Espainiako Senatuko bozketa

Espainiako Senatuan berri-
ro egingo da PFEZren (Pertso-
na Fisikoen Errentaren gaine-
ko Zerga) Legeari buruzko
bozketa, joan zen astean egin-
dakoan senadore batzuk
—PSOE eta PPkoak— bi eta
hiru aldiz bozkatu zutela na-
barmena izan bait zen. Bozke-
ta irregularra izan zenik ez da-
goela frogatua esan zuen hala
ere Juan Jose Laborda Sena-
tuko presidenteak, eta «ko-
menientzi politikoagatik» ba-
liogabetu dutela. Komunikabi-
de zenbaitek argitaratutako
argazkiek ez dute irregularta-
sunik frogatzen Labordaren
erantziz. Ostegunean egingo da
Errentaren Legeari buruzko
bozketa berria. / 14

Israelekin ados jartzeko aukera gutxi du Bakerrek

Shamirrekin bilduko da gaur Bake Konferentziaren aldeko azken saioan

James Baker Estatu idazkari ipa-
rramerikarrak laugarren eta azken
saioa egingo du gaur Israelen Bake
Konferentzia aurrera ateratzeko. Bi-
daiaren inguruan giro ezkorra nagusi
da, aurreko emaitzak eta israe-
liarren jarrera gogorra ikusita. Baker
ezin argiago mintzatu da Kairon:
«Siria eta Israelen jarrerak baterae-
zina dira», esan du diplomatiko
amerikarrak, Alexandr Bessmert-
nikh Kanpo ministro soviatarra eta
Mubarak Egiptoko presidentearekin
bilera egin ondoren. Israelerako bi-
dean Jordanian gelditzekoa da Ba-
ker.

Asteburuan Sirian izan da James

Baker Afez al Asad presidentear-
ekin. Dimaxk-ek, jakina denez, na-
zioarteko bake konferentzia nahi du

✓ Israelen eta Siriaren
jarrerak bateraezinak
direla esan du EEBBetako
Estatu idazkariak.

Nazio Batuen babesean, baina Tel
Avivek ez.

Al Asad egungo lider arabiar era-
gile bakarra izan daiteke eta modu
indartsuan ageri izan da gerraren on-

doren. Mandatariak Golan eskualdea
erdietsi nahi du berriro, eta NBERen
erabakiak beterazi. Gainera, palesti-
narren ordezkari bihurtu da.

Yitzaak Shamir lehen ministro
israeliarra kinka larrian dago mutu-
rreko nazionalistak koalizio gober-
nua botatzeko mehatxuka ari bait
zaizkio, negoziazioetan NBE onar-
tuz gero. Shamirrek argi utzi nahi
izan du «Bakerren aurrean ez duela
amorerik emango».

Gazzah eta Zisjordaniako lurralde
okupatueta palestinarrek, bestal-
de, greba orokorra bultzatuko dute
gaur politikari estatubatuarrari «on-
giatorria» emateko. / 17

EHuko klaustroa bertan behera utzi zuten

Euskal Herriko Unibertsitateak
(EHU) atzo egitekoa zuen ikastur-
teko lehen klaustroa bertan behera
uztea erabaki zuen Mahaiak, bertan
ikasleen ordezkariak 'Barbera kan-
pora' zioen kamiseta zeramalak.
Errektoreak «koakziotzat» eta
«adierazpen askatasunaren aurkako
jokaeratzat» jo zuen ikaslearen age-
rraldia. Ikasleen ordezkari eta LAB
zein EILAS sindikatuek berriz, Bar-
beraren gestioaren berri ez emateko
«aitzakiatzat» jo zuten erabakia. / 9

150 kilo amosal atzeman ditu Ertzaintzak

Ustez ETako Bizkaia ko-
mandoak jaso behar zuen ar-
senala aurkitu zuen joan zen
asteen Ertzaintzak Bedia in-
guru bakoetara, Bilbotik ha-
mabost kilometrora. 150 kilo
amosal, bestelako leherkariak,
detonadoreak, aparailu elek-
tronikoak, eta beste zenbait
tresna zeuden Ertzaintzak
atzemandako zuloan.

Mendizale batzuk emanda-
ko abisuari esker topatu zuen
armategia Ertzaintzak, EAEko
Barne sailak adierazi zuenez.
Aurkikuntza joan zen astean
izan zen, eta egun batzuetan
Ertzaintzak ingurua zaindu
zuen, komandoko kideak
leherkariaren bila zihoazenean
atxilotzeko helburuz. / 4

BESTERIK

E K O N O M I A


Volkswagenek 100.000 milioi
pezeta inbertituko ditu
Nafarroan / 14

K I R O L A

Erabakiorra gerta daiteke Lagos
de Covadongan amaituko den
gaurko etapa / 21

K U L T U R A

Ganbarako musika protagonista
Errenteriako Musikastean / 23



HEGO KOREAKO ikasleen protestak

bertako Gobernuaren aurka eratu den azken urteetako
mugimendu gogorrena bilakatu dira. Unibertsitari
manifestazio batean, Poliziak ikasle bat kolpeka hil
ondoren areagotu egin ziren protestak, eta beste hiru
ikasleek ere su eman diote beren buruari Roh Tae-Woo
lehendakariaren politika salatzeke. Ikasle mugimendu

bezala hasi zenak zentzu politikoa hartu du jada.
Gazteek Barne Arazoetarako ministroaren dimisioa
eskatzen zuten, eta haren burua eskaini zien Roh-k,
baina orain gehiago nahi dute: lehendakariak berak
kargua uztea. Atzo, 'Heriotzaren Brigadak' izeneko
ikasle talde radikalak Roh lehendakariaren
alderdiaren egoitza hartu zuen ustekabeen.

**Herri
Urrats**
*Esker anitz
etortzeagatik*
euskara jalgi hadi plazara